

Euskal Hedabideen Behategia sustatzeko hitzarmena

2016/01/14

Hekimen Euskal Hedabideen Elkarteak eta UPV/EHUK, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK eta Deustuko Unibertsitateak Euskal Hedabideen Behategia sustatzeko hitzarmena sinatu dute, gaur, Bilbon. 2012an elkarrearen eta hainbat ikerketa talderen artean hasitako bideak babes instituzionala jaso du horrela, eta lankidetzaz markoa ezarrita geratu da erakunde akademikoaren eta euskal hedabideen artean. Sinatzaileak izan dira: Hekimeneko zuzendari Alberto Barandiaran; Fernando Plazaola, UPV/EHU Ikerketa arloko errektoreordea, errektore lanetan; Deustuko Unibertsitateko errektore José María Guibert eta MONDRAGON UNIBERTSITATEko errektore Vicente Atxa.

